

KRIMINALIZAZIORIK EZ!

Lekarozko plazan bildu gara joan den udaberrian ustez Aroztegiko proiektua gelditzeagatik, epailearen aitzinean deklaratzera deitutako herritarrei gure babesa eta elkartasuna erakusteko.

TEX eta Palacio de Arozteguia, S.L. bezalako enpresa espekulatzailerik eta suntsitzaileen menpe dauden gobernu eta epaitegiek, sei herritar deitu dituzte deklaratzera, baina proiektu hau herri oso batek gelditu du, ez sei pertsonak. Beraz epaiketa hau herri oso baten kontrako eraso bezala hartzen dugu. Banakako arduraz mozorrotu nahi dutena, kolektiboki erantzuteko prest gaude.

Onartezina da baliabide publikoak herritarren borondatea defendatzeko erabili beharrean lurra eta ingurua xehatzen ari direnen beharretara erabiltzea. Enpresa espekulatzailerik galerak diru publikoarekin estaltzen diren bitartean, herri lurrak eta nekazal lurrak defendatzen dituztenei errepresio ekonomikoa ezarri nahi zaie.

Aldi berean, Nafarroako Gobernuari eta bera babesten duten alderdi guztiei erantzukizun politikoa hartzeko garaia dela erran nahi diegu. Gatazka honek irtenbide politiko erraza du: proiektu hau betiko geldiaraztea.

Nafarroako Gobernutik behin eta berriz inposatu nahi izan da proiektu hau herritarren borondatearen kontra. Behin eta berriz eskatu zaie herritarren hitza entzun eta proiektua geldiaraztea. Azkenengo aldia joan den irailean izan zen: talde parlamentario ezberdinekin bildu eta gure eskaera helarazi arren, isiltasun konplizea bertzerik ez dugu entzun. Ez gara aspertuko erranez proiektu hau gelditu behar dela eta beren burua herritarren ordezkariatzat dituzten horiei dagokiela lan hori.

Hori gertatu bitartean, auzolanean eta borrokan segituko dugu. Borroka hau ez delakoz sei lagunaren artean eramandakoa, ezta sei lagun epaitegietara eramanez geldituko. Borroka hau bizitzaren aldeko borroka da, herri honek bizirik irauten duen bitartean iraunen duena. Hortaz, Aroztegiko parajeak aurtengo udaberrian ere bizirik segituko du, berriz ere loratuko dira Baztango bazterrak.

Mezu hau Iruñeraino eramateko ordua da eta horretarako herritar guztiak deitzen ditugu urtarrilaren 27an, goizeko 9:00etan Iruñean, elkartasuna adierazteko eta epaiketa salatzekeo Nafarroako Auzitegiaren aitzinean egingen den elkarretaratzean parte hartzera.

Epaiketarik ez! Errepresiorik ez!

Errepresioa gelditu! Aroztegia gelditu!